

## 2.1.1.

### ALKATETZA

#### EKITALDI INSTITUZIONALAK ETA PROTOKOLOA

Udalak honako ekitaldi instituzional hauetan parte hartzen du urtean zehar:

- Bost Zaurien funtzioa
- San Ferminen bezperak
- San Ferminen prozesioa
- San Ferminen Zortziurrena
- Batasunaren Pribilegioa
- Done Saturdi

#### BISITA GIDATUAK UDALETXERA

Urtean zehar, 172 taldek bisitatu dute udaletxea (ikastetxeetatik datoz gehienbat); hori horrela, herritarrei doan eskainitako zerbitzu horren bitartez, 4.547 pertsonak bisitatu dituzte udaletxeko aretoak.

Udalak kalitate-sistema bat ezarri du, gogobetetzeari buruzko inkesten bidez, bisitaren edukia, erreserba eta hartutako tratua neurtzeko, besteak be.

| URTEA              | 2016  | 2017  | 2018 | 2019  |
|--------------------|-------|-------|------|-------|
| Talde kopurua      | 124   | 145   | 147  | 172   |
| Pertsonak, guztira | 3.200 | 3.600 | 3700 | 4.547 |

#### HARRERA-EKITALDIAK

2019an, alkatea buru izan den 22 harrera-ekitaldi egin dira, eta udalbatzak ere hartu du parte horietan.

| URTEA            | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|------------------|------|------|------|------|
| Harrera-ekitaldi | 14   | 12   | 26   | 22   |